



Osasuna Politika Guztietan

BATZORDE TEKNIKOA



Txosten
sektoriala

2019

**Aseguramendu eta
Kontratazio Sanitarioak**

2021eko martxoa



Euskadi, auzolana

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SALUD



Aseguramendu eta Kontratazio Sanitarioak

XI. legegintzaldirako (2016-2020) Gobernu Programan Osasun Sailaren inguruan eta Administrazio eta Finantzaketa Sanitarioko Sailburuordetzari "esleituta" dauden konpromisoetan jarri dugu arreta. Konpromiso bakoitzerako, **konpromiso hauei lotutako Osakidetzaren Zerbitzuko Erakundeekin ezarritako Programa-kontratu ezberdinen kalitateko II. eranskinari dagozkion Dimentsio/Adierazleak adierazi dira; bai eta Zuzendaritza honetan egindako jarduketak ere.**

67. konpromisoa: Ekitatea babestea osasun-arretan, arreta berezia jarritz genero-ikuspegian eta giza talde ahulenetan.

1. EKIMENA: Osasun-zerbitzuen ekitatea bultzatu, eta herritarren osasunari arreta egokia ematen zaiola bermatu, prestazioak eta horien iraupena homogeneizatu.
2. EKIMENA: Osasun-maila baxuagoak dituzten pertsonen bideratutako jarduketa espezifikoak garatu, desberdintasunak saihesteko. Hala, arreta berezia jarriko da adineko pertsonengan, ezgaitasunen bat duten pertsonengan, immigranteengan, gaixotasun mentalak dituzten pertsonengan eta askatasunik ez duten pertsonengan.
3. EKIMENA: Osasunaren Tokiko Sareak finkatu eta zabaltu, Lehen Mailako Arretako zerbitzuen, Osasun Publikoko zerbitzuen, udalen eta tokiko sektore eta elkarten artean lankidetzan aritzeko egitura gisa.
4. EKIMENA: C hepatitisaren duten paziente guztiei kasu egin, gaixotasuna sendatzeko tratamenduak emateko; eta gaixotasun hori goiz detektatzeko eta ez zabaltzeko plan bat ezarri.
5. EKIMENA: Genero-ikuspegia sustatu osasun-arloko jarduketa guztietan, genero-arloko eta taldeen artean desberdintasunik egon ez dadin.

EKIMENAK (LABURPENA)

Osasunari arreta egokia ematen zaiola bermatu, prestazioak eta horien iraupena homogeneousatuz.

Osasun-maila baxuagoak dituzten taldeei bideratutako jarduketa espezifikoak.

Tokiko osasun-sareak finkatu eta zabaldu.

DIMENTSIOAK/ADIERAZLEAK:

D2.3 ESIaren populazio-ikuspegia, arazo kronikoei aurre egiteko.

D2.9 Etxeko paziente kroniko ez pluripatologikoen arreta: paziente ahulei eta ez pluripatologikoei arreta emateko sistema bat garatzea eta ezartzea (etxeko kronikoak) LMAU bakoitzean.

D6.5 Sexuaren arabera bereizitako kolon eta ondesteko minbizia goiz detektatzeko programaren ebaluazioa.

D6.6. Genero-ikuspegia aintzat hartu gizarte-baliabideen beharraren arabera.

D6.9. Ekitate-ikuspegia aintzat hartu, gaixotasun mentala duten pertsonak gaixoa ahalduntzeko programetan sartzeko (gaixo aktiboa, osasun eskola...).

D1.2. Patologia anitzeko gaixoen erreferente izango den erizaina ezarri eta hedatu.

D6.11. (Osasun Mentaleko Sarea): Osasun fisikorako estrategia NML (nahasmendu mental larria) duten gaixoengan.

* D1 (Baliabideak), D3 (Arreta integratua), D4 (Segurtasun), D5 (eraginkortasuna, MIA, IKTUSA, DM, HTA, BG), D8 (irisgarritasuna eta itzarote-zerrendak) dimentsioen emaitza guztiak sexuen arabera bereizten dira. DM gabezia-indizearen arabera bereizi da.

84. konpromisoa: Lehen mailako arreta eta hark sistema sanitarioan jokatzen duen eginkizun nagusia bultzatu.

1. EKIMENA: Lehen Mailako Arretarako sei zentro berri ireki.

2. EKIMENA: Diagnostiko-, terapia- eta segimendu-baliabide teknikoak hornitu, osasun-arazo gehienak konpontzeko gaitasun handiagoa egon dadin.

EKIMENAK (LABURPENA)

Diagnostiko-, terapia- eta segimendu-baliabide teknikoak hornitu.
Zentro berriak ireki.

DIMENTSIOAK/ADIERAZLEAK:

D3.14. Lehen Mailako Arreta indartu.

D8.7. Irisgarritasuna Lehen Mailako Arretan.

D2.10 Eskatu ahal den erizaintza-kontsulta Lehen Mailako Arretan.

87. konpromisoa: Herritarren partaidetza eta Osasun Sistema Publikoaren gardentasuna bultzatu.

1. EKIMENA: Euskadiko Osasun Sistema Publikoan Herritarren Partaidetza Programa zabaldu.

2. EKIMENA: Herritarren Partaidetzaren Praktika Onen Behatokia sortu, Euskadiko Osasun Sistema Publikoaren barruan. Horretarako, nazioartean arrakastatsua izan diren kasuak antzeman eta aplikatuko ditugu.

3. EKIMENA: Gardentasuna areagotu aplika daitezkeen tratamenduei buruzko informazioari dagokionez, bai eta kalitateari buruzko adierazleei eta osasun-emaitzei dagokienez ere.

EKIMENAK (LABURPENA)

Herritarren partaidetza-programa.

Herritarren partaidetzaren praktika onen behatokia.

Gardentasuna areagotu.

DIMENTSIOAK/ADIERAZLEAK:

D2.1. Gaixo aktiboaren programaren estrategia ESI bakoitzean.

D7.3. Gaixo/erabiltzailearen partaidetzarako estrategia.

D2.7. Zaintzaileen ahalduntzea (egonaldi luze/ertaineko ospitaleetan aplikatzeko).

D2.9. (Osasun Mentaleko Sarea): Nahasmendu mentala duten pertsonak eta horien zaintzaileak ahaldundu.

76. konpromisoa: Koordinazio soziosanitarioa sustatu.

1. EKIMENA: Erakunde Sanitario Integratuetako Batzorde Soziosanitarioak sustatu.
2. EKIMENA: Gizarte- eta osasun-arloko koordinazioa bultzatu, pertsonak modu integralean ebaluatuko dituzten lehen mailako arreta soziosanitarioko taldeak ezarriz eta hedatuz.
3. EKIMENA: Historia Soziosanitarioa zabaldu, osasun- eta gizarte-eragileen artean elkarreragiteko informazio komunaren oinarri gisa.
4. EKIMENA: Jarduketa-protokoloak sinatu tokiko erakundeekin, gizarte- eta osasun-arloko koordinazioa sustatzeko.

EKIMENAK (LABURPENA)

ESletako batzorde soziosanitarioak.

Lehen mailako arreta soziosanitarioko taldeak zabaldu.

Toki-erakundeekin koordinazio-protokoloak sinatu.

DIMENTSIOAK/ADIERAZLEAK:

D3.3. Gizarte- eta osasun-arloko koordinazio-maila erakundetutako adinekoentzat.

D3.13. Gizarte- eta osasun-arloko koordinazioa.

D3.3. (Osasun Mentaleko Sarea): Gizarte- eta osasun-arloko koordinazio-maila adinekoen arreta psikiatrikorako.

BESTE BATZUK:

Zuzendaritza honek RAI-CA (diagnostiko soziosanitarioko tresna) tresnara mugaririk gabe sartzeko lizentzia erosi du.

64. konpromisoa. Osasun-sistemaren estaldura unibertsala eta irisgarritasuna bermatu.

1. EKIMENA: Herritarrak osasun-sistemara gerturatzea eta iristea errazten duten zerbitzu telematikoak bultzatu eta aurrez aurrekoak ez diren harreman-bideak finkatu.
2. EKIMENA: Gaixotasun kronikoak dituzten pazienteen etxez etxeko arretaren zerbitzu telematikoak sustatzen jarraitu; Osakidetzako erakundeekin zerbitzu-eskaintzan sartuko dira.

3. EKIMENA: Ezgaitasun fisikoa edo sentSORIALA dutenen irisgarritasuna bermatzeko beharrezkoak diren jarduerak egin euskal osasun-sistemaren zentro, instalazio, baliabide eta zerbitzu guztietan.

4. EKIMENA: Herritarren parte-hartzeari leku handiagoa eman osasun-zerbitzuen antolaketan eta erabakiguneetan, eta pazienteen elkarteekin lankidetzaz izatea sustatu, gaixotasuna hobeto ezagutzeko eta bizi-kalitatea hobetzeko tresnak garatzeko xedez.

EKIMENAK (LABURPENA)

Zerbitzu telematikoak sustatu.

Ezgaitasun fisikoa edo sentSORIALA duten pertsonen irisgarritasuna.

Herritarren parte-hartzeari leku egin.

DIMENTSIOAK/ADIERAZLEAK:

D6.9. Ekitate-ikuspegia aintzat hartzea, gaixotasun mentala duten pertsonen gaixoa ahalduzko programetan sartzeko (gaixo aktiboa, osasun eskola...).

D2.1. ESI bakoitzean gaixo aktiboaren programa dago.

D7.1. Gaixoen iritzia ESetan ezagutarazteko estrategia.

D7.2. Osakidetzako II. Euskara Plana.

D7.3. Gaixo/erabiltzailearen partaidetzarako estrategia.

D8.8. (Osasun Mentaleko Sarea): Programa orokorrera 30 egun baino gutxiagotan sartzen diren gaixoen portzentajea (helduak, haurrak).

BESTE BATZUK:

Zuzendaritza honek osasun-sistemako langileek agindutako osasun-tratamenduei atxikitzen erraztera zuzendutako laguntzak kudeatzen ditu.

65. konpromisoa. Itzarote-zerrendak ezarritako ratioen azpitik mantendu.

1.EKIMENA: Abian jarritako neurrietan sakondu, arreta espezializatuko kontsultetara eta proba osagarrietara iristeko itxaron beharreko denbora laburtuta.

2. EKIMENA: Prozedura kirurgikoetarako batez besteko itzarote-denbora martxoaren 21eko 65/2006 Dekretuak ezarritako ratioen azpitik mantentzea bermatu; dekretu horren bidez, Euskadiko Osasun Sistemaren konturako

prozedura kirurgiko programatuetara eta urgenteak ez diren etara iristeko gehienezko epeak ezarri ziren.

EKIMENAK (LABURPENA)

Batez besteko denbora mantentzen dela bermatu.

DIMENTSIOAK/ADIERAZLEAK:

D8.1. Onkologia-prozesuetan kirurgiarako irisgarritasuna.

D8.2. Bihotzeko kirurgia-prozesuetarako irisgarritasuna.

D8.3. Itzarote-zerrenda Orokorra: Hileko batez besteko berandutzea eten-puntuetan.

D8.5. Itxaronaldia aldaka aldatzeko.

D8.6. Screening proba positiboa eman duten pertsonen kolonoskopiarako irisgarritasuna.

D8.7. Irisgarritasuna Lehen Mailako Arretan.

D5.10. Aldaka-haustura duten gaixoen itxaronaldia.

D8.8. (Osasun Mentaleko Sarea): Programa orokorrera 30 egun baino gutxiagotan sartzen diren gaixoen portzentajea (helduak, haurrak).

D8.8.8 (Gorlizko ospitalea): Ospitalez kanpoko errehabilitazio-kontsultarako irisgarritasuna.

D8.9. (Santa Marina ospitalea): Bihotzeko probak egiteko itzarote-zerrenda.

D8.12 (Santa Marina ospitalea): Errehabilitazio-kontsultarako irisgarritasuna.

2020RAKO AURREIKUSITAKO EKINTZAK

Programa-kontratuen ebaluazio-prozesuarekin jarraitzea. Egungo egoera kontuan hartuta, zaila da aurreko ebaluazio-prozesua nola egingo den aurreikustea. Nolanahi ere, sexuaren eta adinaren aldagaiak sartuko dira, programa-kontratuaren estrategietan kalitate-konpromiso gisa: kolon eta ondesteko minbiziaren detekzio goiztiarra, Miokardioko infartu akutuaren (MIA) prozesua, Diabetes Mellitusaren (DM) prozesua, esku-hartze soziala altan, eta abar. Hala badagokio, aurkitutako aldeak aztertzea eta ekintza zehatzak ezartzea eskatuko da, emaitzetan genero-desberdintasunak murrizteko.

“Osasun sisteman Lehen Mailako Arreta indartzea” helburu duen lehen mailako arretaren antolaketa-eredua 2020-2021-2022 ekitaldietan ezarriko da, Lehen Mailako Arretaren Estrategia ezartzeak eskatzen dituen antolaketa-aldaketetara egokitzeke. Ezarpen horrek berekin ekarriko du plazak gehitzea honako kategoria hauetan:

- Erizaintza. 58 plaza.
- Erizaintza komunitarioa. 6 plaza.
- Fisioterapeuta. 18 plaza.
- Farmazialaria. 5 plaza.
- Administrazio-laguntzailea. 23 plaza.

Osasun Sailak eta Osakidetzako zerbitzu-erakundeek sinatutako kontratu-programan dago jasota plaza horien finantzaketa.